



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN 2003-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARENA**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskal Herriko Unibertsitatearen ekonomia-finantza jardueraren 2003eko urtealdiari buruzko fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena HKEEren Osokoaren kideek aho batez onetsi dute.

Epaitegi honen ustetan, Unibertsitateak, zuzentasunez bete du 2003ko urtealdian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia, hainbat salbuespen alde batera, azpimarratzekoak izanik, besteak beste, aurrekontua ez aurkeztu izana, finantzaketarik izan gabe 11 milioi euroko zenbatekoarekin kreditu txertaketak egitea, 8 milioi euroko zenbatekoarekin langileriarri berariazko ordainsari osagarrien ordainketa, kreditu erabilgarria 3 milioi eurokoa denean eta hainbat salbuespen zehatz administrazioko kontratazioaren alorrean.

EHUren Kontuei dagokienez, Epaitegiak uste du aurrekontu-ekitaldiaren jarduera ekonomikoa zuzentasunez aurkeztu dutela, hainbat salbuespen alde batera, batez ere ondare kontabilitaterik ez izatea, ondasun-zerrenda fidagarria ez izatea eta horietan eragin handirik ez duten hainbat doiketa jakin.

Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko Irizpenetan, hainbat alderdi zehaztu dira, besteak beste honako hauek azpimarratuko ditugularik: Aurrekontua izapidetu aurreko urrats den aldetik EAERI langile kostuen baimena eskatzeko beharra; gastua baimendutako gastu unitate anitzetan gehiegi deszentralizatzea –kontrola eragozten dutenak-; eta Berariazko Gerakina aztertu eta arazteko beharra. HKEEk egoki iritzi dio Unibertsitateko langileriak ordutegia betetzen duela egiaztatzeke eta bateraezintasun egoerak azaleratzeko bideratu duen kontrola.

Finantzaren azterketak Unibertsitatearen egoera larria azaleratu du, aurrekontuaren ekitaldi itxieran 13 milioi euroko zenbatekoan negatiboa dena, HKEEk egindako doiketen ondorioz 16 milioi eurora igoko dena. Egoera hau sortu da, batik bat, 2001, 2002 eta 2003ko ekitaldietan egotzitako finantzaketaz gainera irakasleriarri ordainsari osagarriak ordaindu izateagatik; honela, bada, finantzaketarik gabe ordaindutako zenbatekoa 15 milioi eurokoa izan da. Desoreka egoera hau 2004ko abenduan izenpetutako erabakiaren bitartez bideratu da, zeinaren indarrez Gobernuak zenbateko



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

hori Unibertsitateari hamabost eguneko eperako emandako mailegu baten bitartez finantzatuko duen.